# Serigrafia

## Pepe Albacete-ren tailerra

SERIGRAFIA inprimaketa grafikorako metodorik aberatsenetakoa da langai eta forma desberdinetan erabiltzeko aukera eskaintzen duelako. Serigrafia egiteko instalazio konplexuen beharrik ez izatea gehitu behar zaio aberastasun horri.

Tailer honetan SERIGRAFIAren prozesua landuko da, bai bere alde teknikoan eta bai gero artelanen sorkuntza alorreko alderdi desberdinetan erabiltzean Arte lanen inprimaketa eta adierazpen teknika horretan interesa duten pertsona guztientzako da, beren irudiak -pieza bakar, irudi errepikatu edo obra seriatu izan-, sortzeko modu egokia erizten dioten haientzako.

Gure asmoa, beraz, SERIGRAFIAren tekniketan sarrera egitea edo ezaguerak zabaltzea da, eta artegintzaren alorrean teknika horiek aplikatzea.

Tailerra bi partetan banatuko da, lehenengoak garapen teknikoaz jardungo du eta bigarrenak teknika hori laneko modu desberdinetara itzultzeaz, horretarako serigrafilari ez diren baina beren artegintzaren alderdiren batean Serigrafia erabiltzen duten profesional batzuren lankidetza izango duelarik.

### TAILERRAREN EDUKINA

Lehen partea:

1.- Sarrera SERIGRAFIAra. Historia eta oinarrizko kontzeptuak.
2.- Tailerraren antolaketa eta aholku praktikoak.
3.- SERIGRAFIArako orijinalak.
4.- Kliseak: material opakoak, ebaketa, fotomekanika, ...
5.- Pantailak: muntaia eta prestalana. Zuzenean maila gainean lan egitea. Insolazioa (zuzeneko metodoa)...
6.- Paper gainean inprimatzea. rmtaren prestaketa. Erregelak. Ajusteak ...
7.- Pantaila eta materialen garbiketa.

Bigarren partea:

1.- Obra bakarra, obra seriatua, jatorrizko obra eta erreprodukzioko obra.
2.- Serigrafiaren aplikazioak seriatu gabeko Arte lanean. **Alfonso Albaceteren lankidetza** (arte pintorea).
3.- Serigrafia eguneroko inguruneko material desberdinei aplikaturik. **Francisco Martínez Almagroren lankidetza** (oihal eta barne espazioen diseinua).
4.- Serigrafia hiru dimentsiotako formetan erabilita. **Cristina Iglesiasen lankidetza** (eskultura egilea).

### TAILERRA

Tailerraren arduraduna: **Pepe ALBACETE**

Data: **1993ko Apirilaren 1tik Maiatzaren 31 arte.**

Egunak: Astelehenetik ostegunera.

Ordutegia: Trinkoa: goiz eta arratsaldez.

Partehartzaileen gehienezko kopurua: 10.

Matrikula: 34.000 pta.

### OINARRIAK

INSKRIPZIOA: Interesa duten artista guztiek eska dezakete inskribatzeko.

Inskripzioa egiteko honekin batera doan inskripzio orria, curriculum vitae, idatzi labur bat tailer honetan zergatik parte hartu nahi duen arrazoiak emanez eta burututako obraren kolorezko argazki edo diapositibak neurria ere zehaztuz, aurkeztuko dira ARTELEKUn, **Martxoaren 24a baino lehen.**

ONARPENA: Tailerraren arduradunak berak aukeratuko ditu tailerreko parte hartzaileak, eta bere erabakiaren kontra ez da apelazio biderik izango. Ikastarorako onarpena pertsonalki jakinaraziko da.

ORDAINKETA: Partehartzaileek tailerraren lehen egunean aurkeztu beharko dute Kutxan, k/k.aren zenbakia: 132947/3 matrikula ordaindu izanaren agiria.

MATERIALA: Materialaren kostua tailerraren prezioan sartuta dago.

# Serigrafía

## Taller de Pepe Albacete

La SERIGRAFIA es uno de los métodos de impresión gráfica más versátiles por su posibilidad de aplicación sobre soportes de composición y formas diversas. A esta versatilidad se añade el no necesitar de una instalación compleja para su desarrollo.

Este taller va a desarrollar el proceso de la SERIGRAFIA tanto en su parte técnica como en su posterior utilización en diversos aspectos del campo de la creación artística. Va dirigido a aquellas personas interesadas en esta técnica de impresión y expresión artística, considerándola como posible medio para la creación de sus imágenes, bien sea en piezas únicas, imágenes repetidas u obra seriada.

Pretendemos, por tanto, iniciar o ampliar conocimientos sobre las técnicas de la SERIGRAFIA y su aplicación al campo de la producción artística.

El taller estará dividido en dos partes, la primera dedicada al desarrollo técnico y la segunda a la traducción de éste a distintas formas de trabajo, para esto contamos con la colaboración de algunos profesionales que sin ser serígrafos utilizan la Serigrafía como medio en algún aspecto de su trabajo artístico.

## CONTENIDO DEL TALLER

Primera parte:

1.- Introducción a la SERIGRAFIA. Historia y conceptos básicos.
2.- Organización del Taller y consejos prácticos.
3.- Originales para SERIGRAFIA
4.- Los clisés: materiales opacos, recorte, fotomecánica, ...
5.- Las pantallas: montaje y preparación. Trabajo directo sobre la malla. Insolación (método directo)...
6.- Impresión sobre papel. Preparación de la tinta. Regletas. Ajustes...
7.- Limpieza de pantallas y materiales.

Segunda parte:

1.- Obra única, obra seriada, obra original y obra de reproducción.
2.- Aplicaciones de la Serigrafía a la Obra de Arte no seriada. **Colaboración de Alfonso Albacete** (pintor artístico).
3.- La Serigrafía aplicada a distintos materiales del entorno cotidiano. **Colaboración de Francisco Martinez Almagro** (diseño textil e interiorismo).
4.- Inclusión de la Serigrafía en formas tridimensionales. **Colaboración de Cristina Iglesias** (escultora).

## TALLER

Responsable: **Pepe ALBACETE**

Fechas: 1 de Abril al 31 de Mayo de 1993.

Días: Lunes a Jueves.

Horario: Intensivo: mañana y tarde.

Número máximo de participantes: 10.

Precio de inscripción: 34.000 ptas.

## BASES

INSCRIPCION: Podrán solicitar su inscripción en el taller todos los artistas interesados.

La solicitud se realizará mediante la presentación de la hoja de inscripción adjunta a estas bases, curriculum vitae, un breve escrito en el que se expongan las razones por las que desea participar en este taller y fotografías o diapositivas en color de la obra realizada, indican tamaño de la misma, en ARTELEKU, **hasta el 24 de Marzo.**

SELECCION: La selección de admisión se llevará a cabo por el responsable del taller, cuya decisión será inapelable. La admisión al taller se comunicará personalmente.

PAGO: Los participantes deberán presentar el primer día del taller, el justificante de ingreso en la Kutxa, cta. cte. nº 132947/3.

MATERIAL: El coste del material va incluído en el precio del taller.

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

ARTELEKU

Kultura eta Turismo Departamendua
Departamento de Cultura y Turismo